



Astekaria



elgoi



IRAKASLE

ELKARTEA

**ZEZENBIDE**

San Frantzisko 43 • ☎ 74 27 20 • ELGOIBAR

auto-eskola

*Izena ematean  
%10eko beherapena*

OPEL	BEHERAPENA
CORSA	230.000 Pta.*
ASTRA	330.000 Pta.*

\* Bertsioen araberako gehieneko beherapena. Stock-eko ibilgailuentzako promozio beherapena.  
Renove II Planaren abantailak barne. Hilabete honetarako promozioa.

elgoi**BARREN**  
Nafarroa enparantza 2  
☎ 74 41 12

**ARGITARATZAILEA:**

Elgoibarko Izarra.

**LAGUNTZAILEA:**

Elgoibarko Udala.

**ZUZENDARIA:**

Ainhoa Lodoso.

**ERREDAKZIO AHOLKULARITZA:**

Andres Alberdi, Izaskun Elizburu.

**KAZETARIAK:**

Ainhoa Lodoso,  
Jasone Osoro.

**MAKETATZAILEA:**

Maite Rementeria.

**PUBLIZTATEA:**

Nekane Etxaniz.

**ADMINISTRAZIOA:**

Amaia Martin,  
M. Angeles Ortuoste.

**KOLABORATZAILEAK:**

Irati Agirreazaldeggi, Andres Alberdi, Esteban Antxustegi, Pello Arrieta, Felix Arrizabalaga, Mikel Artola, Izaskun Elizburu, Jon Etxabe, Jon Eugi, Ina Garagarza, Joseba Gorosabel, Lorea Gorostiza, Amaia Gorostiza, Xabier Gorriti, Ana Igartua, Maite Iriondo, KOKOE, Joseba Konde, Edurne Korta, Imanol Larrañaga, Javi León, Antonio Matias, Susana Mujika, Maite Solozabal, Karmelo Urdangarin, Aitor Zabaleta, Julen Zabaleta.

**BANAKETA ARDURADUNA:**

Imanol Larrañaga

**INPRIMATEGIA:**

Gertu koop. E.  
(Zubillaga Oñati)

**TIRADA:** 3.500 ale

**LEGE GORDAILUA:** SS-1.038/92

**ISSN:** 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



## Itsasoa zuria da

**H**ala izan zen behintzat irailaren 5ean... “GAUEKO HAMAIKA T’ERDIAK MURUROA”... izenburu sinplea bezain konplikatu du gaurko kontaketak. Egun hauetan Donostiako zinemaldian eskaini diren filme horietako baten argumentua izan zitekeen, zergatik ez ! Etorkizunaren bueltako filme ilun horietako bat. Baina, zoritxarrez, hau ez da filme bat, hau ez da irrealia, hau benetan gertatu da.

Eta oraindik ere ezin dugu galdera burutik kendu... XXI. mendearen atarian, ordenagailuek eguneroko bizitza kontrolatzen duten garai honetan, teknikak sinistezinak iruditzen zaizkigun gauzak egin ditzakeen denboran, zergatik erabili itsasoa, inoiz isuriko ez dena “tanteatzeko”? Ez al litzateke posible izango ordenagailu bidez arma ikaragarri pozointsu horren nondik-norakoa zehaztea???

Galdera bat besterik ez da, agian galdera inozo xamarra, bai, baina zentzugabekeriari luzatutako galdera azken finean.

Eta ez naiz bakarra. Saio nuklearrak mundu guztiak gaitzetsi ditu, bueno ez denek. Frantzia gustura asko, zabal bezain luze gelditu da bere armategi nuklearra pantaila, orrialde eta uhin guztietan jarri eta gero!!

Eta zertarako? Noren edo zeren kontra bota behar dituzte hainbeste kalte egiten dituzten kutxa horiek? Eta galdera gehiago, (erantzun posiblerik ez dagoenean horiek luzatzea izaten baita errexena) NORA GOAZ?


Ozonoaren geruza jadanik, EUROPA bezain handia da, kutsadura maila ikaragarri altua. Udak mendietan bere garraren marka utzi du aurten ere; itsasoak soineko txuri-beltz eta urdinak jazten ditu, orain bai, orain ez... Ibaiak... Beno, ibaiak, famatuek esaten duten bezalaxe, NO COMMENT!

Ekologia moda bilakatu da azken urte hauetan, eta modatzat hartzen diren istorioek jendearen ideiak korapilatu besterik ez dute egiten. Modek ez dute jendearen onarpena jasotzen... Baina EKOLOGIA ez da moda bat. Ekologia, gure ingurukoei zor diegun errespetua azken muturreraino eramatea da... bestela MURUROA, OZONOaren ZULOA, URAREN FALTA, DESERTUEN HANDITZEA eta abar luze batek itxiko baitigu itxaropenaren atea.

Bien bitartean, itsasoak hilotzen txuria erakusten jarraituko du, mundu ero honetan bizi garen guztiok ahobete EZ!!! esan arren... Jakina da, bi monologok ez dute elkarrizketa ematen.

**Susana Mujika**

*Eusko Jaurlaritzako  
Kultura Sailak, Foru  
Aldundiak eta  
Elgoibarko Udalak  
diruz lagundutako  
aldizkaria*



## ? GALDERAK

### Ba al dago San Pedroko bidea konpontzeko intentziorik?

Udaleko Hirigintza Saileko teknikariarekin egon gara eta berak esan digunez momentuz ez dago inolako proposamenik eta asmorik bide hori konpontzeko. Bere hitzetan "dirutza handia behar da eta Udalaren egoera ekonomikoa ez da batere ona."

## KEXAK

10 urteko bi neska etorri zaizkigu herriko goxoki denda batean gertatutakoa salatzen. Dendariak, bueltak ematerakoan, 15 pta. gutxiago eman omen zien. Gaztetxoak kexatu eta dendariak ezetz, ez zuela bere jarrera aldatuko. Umeak bai, baina tontoak ez direla adierazi nahi diete nagusiei.

## TXALOAK

20 urteko neska-mutil batzuk herriko liburutegia txalotu nahi dute. Bertan, azken orduko konpaktoak eta kirola eta informatikari buruzko aldizkariak omen daude, eta hauei eurak nahi besteko probetxua ateratzeko aukera guztiak ematen omen dizkiete liburutegiko arduradunek.

## ESKUTITZAK

### Sarritan oroitzen naiz

**N**ola ez naiz bada oroituko lanean eman ondoren! Hogei urte luzetan zehar ezagututako hainbeste ikasle, guraso, irakasle, momentu zoragarri ugari eta tristeak ere tarteka, ezin daitezke bapatean burutik ezabatu gelako arbeletik egiten den bezala.

Oroimen hauen artean, iazko kurtsoan izaniko ikasleak datozkit sarritan burura. Izan ere, nire azken ikasleak izan baitira. Nola moldatuko ote dira, zer pentsatuko ote dute nitaz... Egoera berri honek, ikasketa mailan arazo handirik sor ez dakiela espero dut.

Beraiei eta batez ere beren gurasoei, heziketa mailan ahal nuen neurrian saiatu nintzela adierazi nahi nieke, kaleratua izan ez nendin egin zituzten ahaleginak eskertu eta bide batez gaizki eginak barkatzeko eskatu.

Irakasleei dagokienez, bizi dugun aurkako ideologia borroka honetan, nirekin batera ikastola publikoaren alde egon direnei, eskerrak eman nahi diet eskaini didaten laguntasunagatik eta nigan beti lagun bat aurkituko dutela adierazi. Junta Erretora zein Komiteko irakasleak eta beste batzuek, beren lanpostua ziurtatu asmoz zuzendaritzari ipurdia garbitzen ibili direnak, lehenbailehen ahaztea espero dut, aski zaila egingo zaidan arren.

Ez dut uste hainbeste urtetako nire zerbitzuek era honetako ordaina merezi zutenik.

Zuzendariek soberan nengoela ofizialki esan zidatenean, ezin nuen entzuten ari nintzena sinetsi, nire ustez beste zenbait irakasleren aintzinasuna, prestaketa eta dedikazioa nirea baino baxuagoak baitziren.

Zuzendaritzak, ordea, gurasoen aurrean kalitatea eta profesionaltasuna aldarrikatu arren, nahiago ditu irakasle sumisoak, kritiko ez direnak eta bere eskola pribatu ereduaz ados daudenak. Egun erdia pasabideetan berrikerian eta "pasakalleak" antolatzen igarotzen badute ere, inoiz ere zuzendaritzaren gestioa zalantzan jarriko ez dutenak, kalitatezko irakaskuntza kalejira eta pasabideetan gauzatuko balitz bezala. Jaso bezate beraz zuzendariek nire mespretxurik sakonena, harturiko erabakiagatik eta arazo honetan izan duten jokabideagatik.

Ez nuke gutun hau bukatu nahi, berriro ere 8. mailako ikasle, guraso eta irakasle lagunei agur bero bat, tristea izan arren, bidali gabe. Agian, etorkizunak elkar gaitzake berriro.

**Enrike Zubizarreta**


## HARRIGORRIGOIKO ERROTABERRITARRAK




**A**ste honetako erretratu a **Iñaki Larrañagak** laga digu. Egia esateko, laga diguna 1936. urteko ARGIAren egutegiaren kopia bat izan da. Bertatik atera dugu erretrauta, izan ere Nasarri bertsolari ezagunak lau orrialdetako elkarrizketa egin baitzion Artazo pilotari elgoibartarrari.

Artazok bere pilotari bizitzari buruz berba luze egiten du eta besteak beste, ezkondu zen urtean 11 hilabetetan 118 partidu jokatu zituela esaten du. Aurrelaririk gustukoena Etxabe III. zela ere aitortzen du eta bakarkako pilotaririk onena, berriz, Atano III.

Elkarrizketa goian agertzen den erretratuarekin batera argitaratu zuten. Zeintzuk diren? Ezkerretik hasita: **Sabin Juaristi** (†), **Justo Juaristi** “Artazo” (†), **Begoña Juaristi** eta **Andresa Arriola** (†).



# Mendi bazterretako



■ ■ Kilo erdi pasatxo pisatzen zituen onddo eder hau hartu zuten Juan eta Haritz Kruzelegi aita- semeak.

Uztailean hasi eta azarora bitartean, goizean goiz esnatzen den edonork mendira begiratu eta otarra besoan, makina bat mendizale aurkituko ditu bidean. Perretxikotara joateko garaia da. Joan den igandean izan zen Karakate elkarteak antolatutako lehiaketa. Han, hainbat eta hainbat perretxiko mota ikusteko parada izan zen. Guk, herritarren artean dagoen zaletasunak bultzaturik, gai honen inguruak aztertu nahi izan ditugu.

**B**elaunaldiz belau-naldi, gurasoek seme-alabei pasatako zaletasuna izan ohi da perretxikotara joatearena. Hala hasi ziren asko eta halaxe jarraitzen dute gaur egun ere bai. Jose Mari Azpiazu Karakate mikologi elkarteko lehendakaria da. Berak esan digunez, “perretxikotara juteko mendixan ibiltzia gustatzia oso inportantia da. Ez daixala pentasatu jendiak perretxikuak bide bazterrian egoten diazela, pagadixetan eta pinadixetan sartu eta batera eta bestera ibili behar izaten da zeozer topatzeko”. Eta

hala ere, askotan ezer aurkitu gabe, hiruzpalau ordu mendian egin eta otarra hutsik bueltatzen da jendea etxera. Pazientzia ere, beraz, dexente behar izaten da. Izarraitz, Karakate, San Pedro inguruan gehiegi ez... Sekretismoak ere badu tokirik perretxikotara joaten direnen artean. Azpiazuren hitzetan, “lagunartian eta esaten da zein zonatan dauan perretxiko asko baina tanborrakin jo biharrik ez dago”. Urritza eta onddoa omen dira arruntenak inguruan, horien artean onak eta txarrak daude, eta bereizten jakin behar. “Hasten dan

## Onddoak laban

**OSAGAIK:**(lau pertsonantzat)  
Dozena bat onddo txapel, 6 berakatz buru, 6 goilarakada oliba olio, goilarakada erdi ardo zuri, gatza eta perexila.

### PRESTAKETA:

Onddoak garbitu behar dira, zikin guztia kenduz eta jatekoa ez dena baztertuz. Laba berotzen jarri

behar da 200 °tara eta bost minutuz mantendu. Bandeja batean onddoak jarri eta gainetik gatza eta olioia bota. Laban sartu eta 10 minututara berakatz txiki-txiki eginda eta ardo txuria bota gainetik. 18 minutuz mantendu eta plater batera ateratzen dira gainetik perexil piska bat botaz.

**GABI jatetxeak emandako errezeta**





# erregeak



edozeinek, topatzen ditxun perretxikoak libururen batian konsultau bihar ditxu. Dudia badao ez jan sekula, bestela sustuak egoten dia eta”. Arropa sendoa baina eroso, euri-takoa, botak eta otarra. Horra hor ekipo konpletoa. Karakateko lehendakariak argitu duenez, “jende asko plastikozko poltsekin juten da. Eta ez da ona, perretxikuak egosi eitzen dia eta hori txarra da. Gero sustuak egon leikez. Onena otarra edo zapi

batian biltzia da”. gain, orientazioa gauza garrantzi-t Izan ere, sarri pag barna sartu behar izaten da eta horietan oso erraza da galtzea.

## Gero eta perretxikozale gehiago

Aspaldian entzun izan da perretxiko kopurua gutxitu egin dela. Jose Marik esan digunez, ordea, “perretxikuak ez dia gutxitu baina perretxikuzaleak bai ugaritu. Pastel berdina dao jende gehixon

egoten da. Etxera bueltatu eta egunak izan duen bigarren plazerraren txanda izaten da: bildutakoa jatea, “errebuelto bezela, erreta, arrainarekin edo osagarri bezela...”. Karakateko lehendakariak jende guztia animatzen du perretxikotara, “otarra hartu beti eta dudia egonez gero jan aurretik kontsultatu”. Perretxikoek dexente

kuen antzerakuak ikusten dia. *Entoloma Lividum*, adibidez, txarra da baina batzutan kolorez aldatu eta *Lepista Nebularisen*, pago zizan antza hartzen dau. Kontuz ibili bihar da”.

## DEBA BAILARAKO XXI. PERRETXIKO LEHIAKETA

### Agirregomezkorta anai-arrebak irabazle

Karakate Mikologi Elkarteak antolatutako Deba bailarako XXI. Perretxiko Lehiaketa eta erakusketa burutu zen pasa den igandean. Iaz baino partaidetza handiagoa izan da aurren, 35 talde guztira. Plaza Han-

diko frontoian jarritako mahaietan kokatu zituzten antolatzaileek inguruko mendietan haurrek batutako perretxiko handi, txiki eta kolore anitzekoak. Saiklkapen orokorreko sarietz gain, lau sari berezi banatu ziren. Beste bi sari, “*Entoloma Lividum*” eta “*Amanita Phalloides*” sortari zegozkion sariak ez ziren eman, inortxok ere ez baitzuen perretxiko

sorta osatzerik lortu, amanitak, banaka batzuk ikusi ziren arren. Perretxikoen barietateari dagokionean, perretxiko ezberdin gutxi zegoen ikusgai. Entolomarik, kuletorik, urritzik eta gibelurdinik ez zen ikusi, amanita phalloides motakoak ere bi ale baino ez. Tamainaz, onddo edo “*Boletus Edulis*” politak zeuden, onddo zuriak batez ere.

#### SAILKAPEN OROKORRA

- 1.- Agirregomezkorta anai-arrebak
- 2.- Rubio anai-arrebak
- 3.- Jon Gurutz Vigar

#### SARI BEREZIAK:

##### • Karakate kartela:

Ibai eta Andoni Etxabe

##### • Aurkezpen sistematikoa:

Uribeetxeberria anaiak

##### • *Boletus Edulis* (I):

Josu Galarraga, Edu Etxeberria, Jon Larrañaga, Oier Irazabal, Joseba Sagasta eta Goiatz Alzibar.

##### • *Boletus Edulis* (II):

Asier Ajuriagerra, Unai Alonso, Jon Munin eta Aian Alvarez.



■ ■ Agirregomezkorta anai-arrebak. eta lehiaketako partehartzaile guztiak.





## Irakurtzen al duzu egunkaririk?



**MIGUEL ANSOLA**  
64 urte, jubilatua

Astian bi aldiz, astelehengan eta zapatuan, deportiak irakurtzeko batez ere, Primitiban edo kinielan zeozer tokau jatan ikusteko.



**PATXI GOMEZ**  
20 urte, ikaslea

Astebukaeran bai. Atzeko orrialdearekin hasten naiz eta gero, kirola, eskelak eta anuntzioak izan ezik dena irakurtzen dut, politika eta abar.



**CONCHI DOMARCO**  
35 urte, etxekoandrea

Ez, normalean ez. Astebukaeretan erosten dugu eta orduan zerbait begiratzen dut baina irakurtzeak alperra ematen dit. Telebista nahiago dut.



**NORA RAMON**  
25 urte, ikaslea

Bai, egunero. Lehenengo deportiak irakurtzen ditzut eta gero beste guztia. Ekonomia da gutxien interesatzen jataka baina beste dena irakurtzen dot.



**JESUS MARI UNZUETA**  
34 urte, irakaslea

Lehen baino gutxiago, asteen behin irakurtzen badot nahikua. Lehenengo orrialdian jartzen dabaren arabera irakurtzen dot barrukua.



**MARIAN BLAZQUEZ**  
35 urte, etxekoandrea


Bai, asteburuetan gehiago denboragatik, baina ahal dudan guztietan irakurtzen dut. Elgoibarko kartarekin hasten naiz eta hortik aurrera dena, eskelak eta guzti!



Esozia auzoa z/g - ☎ 75 10 01 - SORALUZE

## ESOZIA JATETXEA

*Ospakizun berezietarako toki aproposena.  
Zugandik oso gertu!*



## ■ “Il ladronne” opera bufa Herriko Antzokian

Datorren urriaren 6an Donostiako Gaztelubide Elkarteko kideek antzeztutako “Il ladronne” opera bufa taularatuko da gaueko 22,15etan Herriko Antzokian. Bi zatiko antzezlan honetan musika eta umorea nahasten dira. Zuzendaria Carmelo Moreno da, zuzendari musikala Pello Mendizabal eta pianojolea Josetxo Mujika. Ekitaldiaren sarrera 400 pta.koa da.

## ■ Urrian jarriko da martxan Bertso Eskola

Elgoibarko Izarra Kultur Elkartearen baitan dagoen Bertso Eskolak 95/96 ikasturteari ekingo dio urriaren 7an, larunbata. Goizeko 11etan Elkarteak Ubitarten duen egoitzan aurkezpena eta taldeen antolaketa egingo da. Irati Agirrezaldegi eta German Meabebasterretxea irakasleentzako agindupean urritik ekainera arte luzatuko da bertso eskolaren ikasturtea, guztiz dohainekoa gainera. Izena eman nahi duenak 74 16 26ra deitu edo Ubitarteko egoitzatik pasa daiteke.

## ■ Zergen plenoa

Zerga, tasa eta prezio publikoei buruzko plenoa izan da gaur arratsaldean, hilak 29. Honen inguruan Herri Batasunak herriko agente sozial ezberdinekin elkarrizketa prozesu bat hasiatez proposatu zion iaz Hazienda Batzordeari, “zergen auziak herritarren artean sortu zen mugimendua ikusirik”. HBkoen esanetan “denbora eza izan da proposamen hau ez onartzeko argudioa, beste urte batzuetan urrian onartu baitira zergak eta tasak”. Alderdi abertzaleak “inor enteratu gabe” eta gaia “presaka” tratatu nahi izatea salatzen du, “iaz jaso ziren mila eta piku sinadura aintzakotzat hartu eta Udalak herritarren iritzia jasotzen jakin behar duelarik”.



## Asteburuan San Migeleko jaiak bukatu eta Errosariokoak hasiko dira

Pasa den asteburuko Taupada, argazkian agertzen diren Ehun Kilo eta Trikitixa Kontrairo taldeen kontzertura jende gehiegi ez zen urreratu baina rock zaleek izan zuten gozameneko aukerarik. Gaur, San Migel eguna ospatu dute. Gaueko 22,30etan Haritz Dantzari Taldeak folklore puntua jarriko du eta EGA-Nek dantzarako gogoia piztu. Larunbatean, hilak 30, idi demak izango dira gaueko 22,00etatik aurrera. Ondoren bolo tiraldiak sari eta guzti, eta gau osoan zehar goizalde arte, gaupasa Luhartz taldearekin. Urriaren lehen egunean, bertso jaialdiak emango die bukaera aurtengo San Migel jaiei. Gonbidatutako bertsolariak Lizaso, Egaña, Peñagarika-

no, Sarasua, Iturriaga eta Iratxe Ibarra dira. Saioa arratsaldeko 5etan hasiko da.

Batzuk bukatu eta besteak hasi. Datorren aste osoan zehar egunero, Errosario kaleko jaietan, buruhandi eta erraldoekin kalez kale ibiltzeko aukera izango dute gaztetxoek. Ostegunean herri kirolen txanda izango da eta ostiralean Errosarioko Amabirjinaren bezpera egunean, otoitz egingo dute eta salbea kantatuko Amabirjinaren irudiaren aurrean. Itxaropena abesbatzak abestuko du eta 9ak aldera, afari herrikoia izango da Gure-Bide elkartearen. Afarira joan nahi duenak Juanito Gorostizari eman diezaioke izena (74 23 44).

## ■ Gazte Asanbladaren zenbaki saritua

Joan den larunbatean, hilak 23, Gazte Asanbladak egin zuen mendirako materialaren zozketan 0900 izan zen zenbaki saritua. Irabazleak urriaren 24ra arte dauka saria jasotzeko astia. Horrela izan ezean saria bigarrenentzat izango da, 0156 zenbakiarentzat.


## ■ Txankakuaren zozketaren sari banaketa

Txankakua Merkatari eta Zerbitzu elkarteak joan den uztailaren 27an, Folklore jaialdian egin zuen 10.000 pta.ko 5 eros-txekeen sari banaketa ekitaldia urriaren 4an izango da arratsaldeko 8,15etan Kultur Etxean. Saritutako zenbakiak honako hauek dira: 5.674, 5.531, 763, 875 eta 703. Erretserbakoak 5.740, 813 eta 683 dira.



AITOR ZABALA

**Manolo Gurrutxaga eta Migel Angel Conde,** C.D. Elgoibarko Agustin Unzueta "Moskote"ren aldamenetara agertzen direnak, izan dira kuponazoaren irabazleak. Pasa den igandean Haundi eta Lagun Onak taldeen arteko partiduaren atsedendian egin zuten 250.000 pta.ko sariaren banaketa. Urriaren 6an, Mintxetan bertan egingo da "kuponazo"aren zozketa.



**Open House 95** deritzon ate irekien jardunaldiak burutu dira Danobat-en hilaren 25etik 29ra bitartean. Lau egunetan zehar 5 errekifikatzailez eta motore-blokeak, kulatak, zigueinalak eta bielak mekanizatzeko 16 transfer makinaz osatutako proiektua ikusgai izan du Grupo Danobat-ek. 2.000 milioiko proiektu hau Chinako Norinco gorporazioak burututakoa da. Grupo Danobat-ek 606 langile dauzka eta aurrean 9.244 milioi pta. fakturatzeko asmoa dute. Horietatik 7.346 milioi esportazioari dagozkio, produkzioaren %80 hain zuzen.

## ■ Erraldoi konpartsak egiteko ikastaroa

Taupada antzetzaldeak hankapalu eta erraldoi konpartsa egiteko ikastaroa antolatu du. Hankapaluak egiteko eta ibiltzeko teknikak, erraldoiak sortzeko eta kale animaziorako teknikak ikastea izango da asmoa, gero, erraldoien konpartsa osatzeko. Ikastaroan parte hartzeko baldintza bakarra 16 urtetik gorakoa izatea da. Ikastaroa Kukubiltxoko kideek emango dute, urriaren 16tik azaroaren 17ra bitartean, astelehen eta asteartean arratsaldeko 5etatik 7ak arte eta ostegunetan 6etatik 8etara. Izena emateko Taupadaren egoitzara zuzendu arra-tsaldeko 6etatik 8etara ostegunetan. Ikastaroan 15 ikaslerentzat baino ez dago lekua. Matrikulatzeko azken eguna urriaren 6a izango da.

## ■ Atzerritarrak IMHn

IMHn bekadun moduan dagoen Norbert Springer austriarrak zentru mekanizatuentzako CAPP-CAM integrazio programa burutu du. Programa honi esker CNC makina baten programak dituen bi aspektu ezberdin elkarlotzea posible da, hau da, CAPP edo planifikazioa eta CAM edo kontrol numerikoa lotzea. Austriarra Injinerutza mekaniko ikasketak burutu ondoren Comett deritzon programari esker dago Elgoibarren. Beste atzerritar bat, Sidiahmdat Mohamed Lamin Suilem Saharako Lanbide Heziketa ikastetxe bakarreko zuzendaria, hilabetez egongo da IMHn, Elgoibarko ikastetxeen antolamendu sistemaren nondik-norakoak jasotzeko. Asmoa Saharako lanbide heziketako ikastetxean hemengo sistema aplikatzea da.

## ■ Oleoa eta esmaltea

Egur-ek oleo ikastaroa emango du urriaren 9tik 31ra bitartean. Arratsaldeko 6etik 8etara bitarteko ordutegia izango du. Suan egindako esmalte ikastaroa, berriz, urriaren 2an hasiko da eta bietarako izena emateko Egur-en egoitzatik pasatu arratsaldeko 6etaetik 8etara bitartean.

Aitor Ibabe:

## "Aurten Deban 59 erreskate egin ditxugu"

Uda partean hondartzetan sarri protagonista bihurtzen dira. Deban, guztira, bederatzita neska-mutil egon dira eta horietatik hiru elgoibartarrak: Mirari Osoro, Borja Uriarte eta Aitor Ibabe. Aitorrek Injineritza tekniko

bukatu berri du eta duela hiru urte hasi zen sokorrista lanetan. Aurtengo udako denboraldian, Debako sokorristen arduraduna izan da. Hona hemen kontatu dizkigun hainbat gora behera.

- Nolatan elgoibartar bat Deban sokorrista?

- Txikitatik beti Debara jun izan naiz uda pasatzera. Oin dala hiru urte diru piskat irabazi nahi naban eta beti hondartzan sartuta nauanez pentsatu naban lan politxena sokorristarena izango zala.

- Prestakuntza berezirik beharko da, ez?

- Bai. Lehenengo Ermuan "primeros auxilios" ikastaroa ein naban. Azterketa aprobatu eta gero, Bergarako pistinan egon nintzan "socorrismo acuatico" deitzen danerako preparatzen. Horiek dia probarik gogorrenak. Pasatu eta gero Gurutze Gorrian ematen dozu izena eta bat edo bat bihar bada-be deitxu eitzen dizue.

- Non hasi zinen zu?

- Oin dala hiru uda Zarautzen egon nintzan. Iaz eta aurten Deban.

- Eta zer behar du jakin sokorrista batek?

- Inportantiena ahoz ahokoa eta bularreko masajia nola eman jakitia da. Zauriak nola sendatu bihar dian, medusen eta salberen pikadurak nola tratatu... Eta, nola ez, uretan oso ondo moldatu biharra dao.

- Zein da zure lana?

- Sokorrista batek eitzen daban lanaz gain,



"Jendiak zure lana eskertzen dabanian, momentu txarrak ahaztu eitzen dia"

hasieran sokorrista guztixak lortu bihar ditxut, goizero partea bete, hau da, uraren kalitatea, tenperatura, egun horretan zein bandera dagoen... 11etatik 8etara egoten gera eta amaitzerakuan egunian zihar pasatu diazen gauza guztiak apuntatu bihar ditxut.

- Uraren kalitatea ona izan al da?

- Hamabost egunian behin etortzen dia uran kalitatia aztertzer eta aurten, aspaldiko partez, inoiz baino hobia euki deu. Egundogututan jarri bihar izan dogu uretatik urten eta gero

dutxatzeko oharra baina ostan-tzian, jeneralian oso ondo ibili da ura.

- Uda lanpetua izan al duzue?

- Jendiak pentsatzen dabana baino peligrusuaua da Deba. Aurten korronte txar bat sortu da maria behera egoten zan guztietan eta nahiko arazo izan ditxugu. Danera 59 erreskate ein ditxugu. Eta salberak ere asko ibili dia, hondar azpitan egoten diazen arrainak dia eta benenua dake.

- Lan gogorra?

- Bai, batez ere arduradun bezela zaudenian. Demaseko estresa sortzen

jatzu ze denbora guztixan daukazu burua hondartzan, nahiz eta eguna libre euki. Ardura guztixa zuria da eta horrek asko eragiten dau.

- Alde onik ere izango du.

- Bai, dudarik gabe. Oso esperientzia ona da, nik edozeini aholkatuko nioke. Momentu txarrak egon arren, pertsona bati bizi salbatzeak asko betetzen zaitxu. Jendiak asko eskertzen dau gure lana eta horrek momentu txarrak ahaztarazten dizkizu.

- Topikoak dioen bezala, asko ligatzen al dute sokorristek?

- Ligatu ez dakit baina jende asko ezagutzen dozu. Hondartzan egoterakuan egun guztixa jendiak badaiki nor zeran eta erretzaua da jendia ezagu-tzia.

- Datorren urtean berriz?

- Espero dot ezetz. Jende gaztiari laga bihar jako eta gainera nere asmua nik ikasitxakuakin lotuta dauan zeozertan lana topatzia da. Halere, esperientzia ona izan da, harreman politxa sortzen da danon artian. Egunero-egunero ordu asko pasatzen ditxuzu jende berdinakin, momentu onak eta txarrak konpartitzen ditxuzu... Harreman estua sortzen da. Ligeren bat ere egon izan da aurten...



## 12 urtetik aurrera, zer?

**I**kasturte berriarekin batera zurrumurru batekin egin dugu topo Mendaroko kaleetan. "Gure haurrak 12 urterekin Elgoibarrera ikastera".

Erreforma martxan dago. Aurten amaitzen da Lehen Hezkuntzaren etapa, haurrek hamaika urte izan artekoa hain zuzen. Lehen Hezkuntzaren ostean Bigarren Hezkuntza hasten da, 12 eta 16 urte bitartekoa eta bi ziklo ditu: lehenengoa 14 urtera artekoa eta bigarrena 16ra artekoa. Lehen, OHO 14 urtekin amaitzen bazen, orain erreformarekin Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza 16 urtera arte luzatzen da.

Zenbait herritan hezkuntza sistema osoa ezarriko da eta beste zenbaitzutan Lehen Hezkuntzara arte, ikasle kopuruaren arabera. Bigarren Hezkuntzan ikasgaiak aukeran daude eta derrigorrezkoa da bi adar mantentzea. Mendaron ikasle kopurua txikia da eta ezinezkoa da bi adarrak mantentzea. Arrazoi hau dela eta, Mendaroko haurrek 12 urterekin Elgoibarrera joan behar dute ikasketak burutzera. Baina, badirudi arazoa ez dela hor konpontzen. Alde batetik, zuzendariak esan digunez "Mendaroko herriarentzat eta bereziki Ikastolarentzat kalte bat suposatzen du azken bi ikasturteak herritik kanpo egin behar izateak. Izan ere, azken bi urteetan izaten baita aktibitate handiena, antzerkiak eta abar". Bestalde, "ez dugu ikusten Elgoibarren lokal egokirik dagoenik Bigarren Hezkuntza emateko eta Mendaron horrenbeste urte kondizio txarretan egon eta gero, egoera ona lortu dugunean, 12 urterekin haurrak Elgoibarrera bidaltzea kondizio eskasagoetan egoteko ez zaigu egokia iruditzen".

Arazoa konpontzeko irtenbide



12 urterekin haurrak Elgoibarrera joan behar dute.

bat proposatu dute, "egokiena, Bigarren Hezkuntzaren lehen zikloa, 14 urtera arte, Mendaron ematea litza-teke ez baitago ia aldaketarik. Mendaron eman daiteke ziklo hori instalazio egokian baitaude: laborategia, informatika gela.. "

Proposamena defendatzeko komisio bat sortu da. Partaideak

ARNO Guraso Elkarteko kide bat, irakasleen ordezkari bat, Ikastolako zuzendaria, gurasoen ordezkari bat eta Udaleko ordezkari bat dira.

Zuzendariak Udalaren partaide-tzaren garrantzia azpimarratu du, honek bere pisua agertu beharko baitu proposamena aurrera eramateko orduan.

### Haurrak Elgoibarrera joatea ez da logikoa

Mapa eskolarra ateratzen denean beste herri txikiekin (Elgeta, Soraluze...) elkartu nahi dugu indarra izateko. Ez dut uste trauma bat denik hamabi urterekin Elgoibarrera joan beharra. Baina, lehen Mendaron hain kondizio txarretan egon eta gero, Ikastola berria izatea lortu dugunean, ez zait logikoa iruditzen Elgoibarrera joan behar izatea. Bestalde, Mendaron ez da inoiz ikastola girorik sortu eta herri gazte bat garenez, ahalegina egin behar

dugu giro hori sortzeko. Ni ez nago haurrak Elgoibarrera bidaltzearen aurka baina zein kondiziotan egin behar duten ikusi behar da. Guk ahalegin guztiak egingo ditugu haurrak Mendaron gera daitezen. Guztion arazoa da, gurasoona eta Udalarena.

Anparo Txurruka





## Kilometroak 95

Udal Euskara Batzordeak igandean, urriak 1, Donostian burutuko den Kilometroetarako autobusak jarri ditu. Irteera goizeko 8,30etan izango da estazio aurretik eta itzulera gaueko 8etan. Dagoeneko autobus bat bete da eta bigarrena ere antolatu da. Izena Txirristaka, Ormola, Arboleta eta Leku-Ona tabernetan eman behar da eta epea larunbatera arte luzatu da.

## 1996rako zergak, tasak eta prezio publikoak

Datorren urterako udal zergak, tasak eta prezioen igoera onartu zuen Udalbatzak ostegunean. %4ko igoera izango dute ondoko zerga hauek: trakzio mekanikoen ibilgaluak, ur-hornidurak, zabor bilketak, hileta-zerbitzuak eta establezimenduen irekitzeak. Uraren ordainagiriari, kontzeptu berri bat ezarriko zaio, azpiegitura hidraulikoen finantzaketarako zerga, hau da, gastatutako m<sup>3</sup> bakoitzeko 5 pta.




**Aitor Etxeberria margolari mendarotarrak** lortu du Lezoko Udalak antolatuta joan den 16an burutu zen pintura lehiaketako lehen saria. Berrogei pintatzaileen artean Aitorren lanari erabaki zuen epaimahaiak saria ematea. Honez gain, Deban izan zen margo lehiaketan aipamen berezia merezi izan zuen mendarotarrak. Gure aldetik zorionik beroenak Aitorri lortutako emaitzengatik.

2

## JOSE MARI ARANZAMENDI "KATEI"

### Edari Banatzailea



**GURELESA**



**H**ilabete honetako argazkia **Juanita Ulaziak** lagatakoa da. Berak esan digunez 1959. urtean Santa Ana egunean ateratako argazkia da. Urte hartan Mendaroko zenbait herritar mozo-rotu egin omen ziren eta Juanitak esan digunez karroza handi bat ere egin zuten.

Hona hemen argazkian mozo-roturik agertzen diren emakume mendarotar hauen izen-abizenak:

Ezkerretik hasita, **Juanita Ulazia**, **Jesusita Iriondo** eta **Begoña Aranberri**.



3

## *Fran Garagarza* Kilimoiko entrenatzailea



- Zein toki betetzen du futbolarik zure bizitzan? ■ Hirugarrena.
- Noiztik entrenatzaile? ■ Gutxi gora-behera orain dela sei-zazpi urtetik.
- Loteria tokatuko balitzaizu? ■ Futbol eskola bat sortuko nuke.
- Nola ikusten duzu Kilimoiairen egoera? ■ Hobetu beharra dago baina ez nik uste nuen bezain eskasa.
- Jokalari faboritorik? ■ Denak.
- Zenbat entrenamendu astean? ■ Hiru edo lau.
- Jokalari on batek izan behar dituen ezaugarriak? ■ Lehenik eta behin jokalaria bera pertsona izatea eta gero kontzentrazioa, abiadura, gogoia...
- Kategoriaz igotzeko esperantzarik? ■ Baliteke, baina lan asko egin beharko da.
- Mutriku ala Mendaro? ■ Mutriku, noski.
- Futbol zelai berria izatea gustatuko litzaizuke? ■ Bai.
- Etxeberriari buruz zer? ■ Ados nago berarekin, Bilbora joateagatik Bilbon jokatzeko aukera gehiago izango baititu. Nik bere lekuan berdina egingo nuke.

## Enetz eta Ibai:

"Naturarekiko errespetua txikitatik hartu behar da"

Mendaroko bi gazte hauek ekologistatzat dituzte beraien buruak baina ez daude inongo taldetan sartuak. Beraiek diotenez, maisuren baten eragina izan zen kontzientzia ekologista piztu zuena. Naturaren eta animalien maitale amorratuak diren bi gazte hauekin egoteko parada atsegina izan dugu.

- Zein dira zuen helburuak?

- Gu ez gaude inongo taldetan sartuta baina inportanteena jendeari ekologiarekiko kontzientzia piztea dela uste dugu. Jendeari ez zaio axola paper zati bat lurrera botatzia edo kazara juatia... Nuklearrekin eta horrelakoekin ezin gara hasi Mendaron, hemen gauza txikiagoekin hasi behar dugu, bertako arazoekin, eta horretarako elkarte bat behar da.

- Mendaron talde bat osatzeko asmorik?

- Asmoa bai baina jendeak adarra jotzen digu. Udalera ere bidali izan ditugu eskutitzak baina ez digute kasurik egiten. Beste herri batzuetan agian askoz ere kontzientzia ekologikoagoa dago.

- Deba ibaiari buruz, zer?

- Lotsagarria da Deba ibaiaren egoera. Aurten datu batzuk atera dituzte eta horien arabera Oria omen da Europako ibairik zikinena eta ondoren Deba. Deba ibaia Leintz Gatzagan hasten da, dotorea eta txikia da. Arrasate eta Bergara aldetik pasatzen da ondoren eta hor bukatzen dia politxtasun guztiak. Lehen Deba ibaian jendia bainatzen omen zan eta ez zauan hondartzara jun biharrik.

- Mendiei buruz, zer?

- Atxuri aldiaren pista asko daude erabili ere egiten ez diranak eta honek itxura zatarra ematen diote mendiari. Etun aldiaren dauden pista



ia denak ez dira inora iristen. Gainera, pinuz beteta daude eta pinuek lurra aldatzeaz gain, beste arboletan bizi diren animaliek ez dake bizitzeko tokirik.

Esaten dabe beti arbola klase berdina badago plaga bat etortzen darian dena estropeatzen dala. Aldiz, klase ezberdinak badaude, arbola gutxi batzuk bakarrik izaten dira kaltetuak.

- Zezenak, korridak...

- Ohiturak direla esaten dabe baina ohitura eskasak ere badaude. Zezenari kristonak egiten dizkiote eta hori da hain zuzen jendeari gus-

tatzen zaiona. Zezenaren aurka egin nahi badute, jun daitzezela mendira eta burruka dezatela han kaparik eta ezpatarik gabe.

- Heizarako sasoia da.

- Guk ehiztariak errespetatzen ditxugu baina mendian ibili nahi duenak ere eskubidea dauka lasai egoteko, tiro artian ibili gabe. Telebistan entzun zan piraguista bati tirua bota ziuela eta hospitalera eraman behar izan zebela. Mendira jun nahi badozu ondo pasatzera, ez daukazu eskopeta bat eraman beharrik.

- Kilimoi errekan arrainak hilda agertu direla entzun dugu.

- Biologoren batekin ibili omen dira eta Frantziara bidali dituzte autopsia egitera baina han esan dutenez, beranduegi omen da. Kasu horietan amurraina edo dena delakoa hartu, izozkailuan sartu eta arduradun bati eman behar zaio.

**"Mendaron,  
bertako arazoak  
konpontzeko elkarte  
bat behar da"**

kiliBARREN

Kolaboratzaileak: Joseba Etxeberria, Oihana Tarragual eta Alaitz Vives.



Mendaroko Udalaren  
dirulaguntzarekin  
argitaratua

## Patxi Arberas

Teod brikolage dendakoa



● **Zergatik Teod?** ▶ Amonak Teodosia izena zuen eta hasieran bere izena zeraman dendak ere. Gero, Teod izendatu genuen.

● **Zertarako duzu esku ona?**

▶ Ez dut uste ezertan bereziki ona naizenik.

● **Eskuina ala ezkerra zara?**

▶ Eskuina.

● **Esku luzea dutenentzat zigorra?**

▶ Lapurtzea ondo ez dagoela ikusarazi behar zaie.

● **Esku zabalak direnentzat oparia?** ▶ Eskuzabala izatea nahikoa opari da bai beraientzat bai eta ingurukoentzat ere.

● **Zein mementutan behar da esku gogorra?** ▶ Pertsona batek gauza bat gaizki egiten duenean nahiz eta gaizki dagoela jakin.

● **Eta noiz behar da izan esku leuna?** ▶ Bizitzako une kritikoetan.

● **Eskupekoa emateko ohiturarik?** ▶ Ez, ez daukat.

● **Esku-lanik astunena?** ▶ Lan monotonoak, adibidez, zortzi orduz torniloak sartzen egotea.

● **Eskua irakurri izan al dizute inoiz?** ▶ Ez, ez daukat interesik eta ez dut horrelako gauzetan sinisten.

● **Neguan eskularrurik erabiltzen al duzu?** ▶ Ez.

● **Zure bizitza berreraiki behar bazenu, nondik hasiko zinateke?**

▶ Inondik ere ez, ez nuke aldatuko.

● **Zein kolorez margotuko zenituzke Elgoibarko kaleak?**

▶ Zuriz, kaleak argitzeko, nahiko ilunak dira eta.

● **Bizitza modulutan banatuta egongo balitz, zerk izango luke toki preferentziala?** ▶ Osasunak.

● **Zure neurrira eginiko bizitza?**

▶ Elgoibarren daramadan bizitza nere neurrira eginikoa da.

● **Zure aurpegia molde batetik ateratzekotan, zein aldaketa egingo zenuke?** ▶ Bat ere ez. Ez nuke ezer ere aldatuko.

● **Nori emango zenioke "brotxazo" bat?** ▶ Politikoei.

● **Gaztarotik berreskuratuko zenukeena?**

▶ Elgoibarko kaleen garbitasuna.

● **Munduko zer moztuko zenuke zerra batez?** ▶ Burokrazia.

● **Zer egingo zenuke paradisuari jartzeko?** ▶ Karakate mendia.

● **Esan nahi duzuna.** ▶ Hauteskundeetan zerrenda irekiak izatea gustatuko litzaidake.

## SAN MIGELAK

**DOINUA:**

Esne saltzailearena

San Migel jaietako atarian gaude denontzako hobe aurten ere badago nahiko nobedade juergarako dagona indartsu ta trebe bisitatxo bat egin bildurrikan gabe elgoibartar guztiak konbidatuta daude (BIS)

Jai giro eder baten hiru lau bat egun pasatu ditzagun ia azaltzen zaigun guk nahi hainbat lagun eguraldia ere porta bedi bigun bestela gauza onik ez daukagu inun ia hego haizeak lagundutzen digun



ZIARDA



**OIERKI** IGONGAILUAK

Urrutira deitu gabe bertakook segiduan konponduko dizugu igongailua

☎ (943) 11 35 15 ● ☎ ABERIAK (943) 11 35 15  
Bista Eder, 11 (sotanoa) ● 20600 EIBAR

## Asteburuetan 3,30etan itxi behar dute taberneak

**E**usko Jaurlaritzako Barne Sailak, 1988an, tabernen eta antzeko toki publikoen ordutegia zehaztu zuen. Orain zazpi urte atera zen lege hau aplikatzen hasi da Elgoibarko Udala herritar gazteen artean kezka nabarmena sortu delarik. Guillermo Garate alkatearen hitzetan, "kezkak alde guztietatik datoz. Batzuk tabernetako musika eta iskanbila dela eta lo egin ezinik egoten direlako kezkatzen dira, gazteak, berriz, goizegi ixten direlako. Denen gustua ezin da egin. Legea hor dago eta horren arabera konpondu behar dugu, ahal denean guztion gustua eginez. Jaietan, adibidez, ordutegia erabat irekia izaten da". Tabernari guztiek jaso zuten araudia eta azken asteotan, larunbat gauero, hainbat udaltzain ibiltzen da kalean zehar tabernariak ordutegia bete dezaten. Besteak beste, legeak dioe-

nez, taberneak 2,30etan itxi behar dute astean zehar eta asteburuetan 3,30etan. Ordu horietatik aurrera taberneak ixteko agindua dute, ezin da kanpoko inor sartu, barruan daudenei ezin diete kontsumiziorik eman, musika kendu behar dute eta ordu erdira jende guztiak tabernetatik kanpo egon behar du. Era berean, hamabost minutu aurretik, tabernariak bezeroei ixteko ordua iritsi dela jakinarazi behar diete.

Uda garaian, Aste Santuan eta abenduaren 21etik urtarrilaren 6ra bitartean ordu erdi luzatzen da ixteko ordua. Kontzertuak eta bestelako ikuskizunak antolatzen direnean jaiak direla eta, herri bakoitzeko udalaren esku dago amaierako ordua erabakitzea. Era berean, lokal horietatik ezin dute goizeko 6ak baino lehen ireki eta itxiera eta irekitzeko orduen artean gutxienez 4 orduko tartea behar da.



ORDUTEGIA	ASTEGUNETAN	ASTEBURUETAN
Tabernak eta bodegak	24,00etan	1,00etan
Jatetxeak, erretegiak...	2,00etan	3,00etan
Kafetegiak eta abar	1,30etan	2,00etan
Taberna bereziak	2,30etan	3,30etan
Diskotekak	4,00etan	5,00etan
Kafe-teatroak	4,00etan	5,00etan
Dantzalekuak Ikuskizunak	4,30etan	5,30etan
Bingo, joku etxeak...	3,00etan	4,00etan
Gastronomi elkarteak	2,30etan	3,30etan

### 3. ADINALDIA URRIAN ZEHAR

- Dohaineko begi berrikuspena
- Betaurrekoak kristal eta guzti, urrutirako edo gerturako **6.900**
- Betaurreko bifokalak **9.900**



San Frantzisko, 21 ☎74 03 59

**DEI EGIZU ZURE BISITAREN EGUNA ZEHAZTEKO**



## Foruen Enparantza

- Garai batean Kalegoengo plaza deitzen zitaion.
- Elgoibarko Plaza Handia hiribilduaren erdian eta gune historikoan dago kokatua. Gaur egun duen lauki zuzen itxura XVIII. mendeko lehen laurdenean erabaki zen neurri handi batean. Plaza barrokoa San Bartolome parrokia, frontoia, udaletxea eta honen aurreko etxeak eraiki zirenean osatu zen.
- XVIII. mendea baino lehen hasi zen plaza erabiltzen. 1346. urterako toki publikoa zen.
- XV. mende bukaerarako zubi ondoan Kontzeju-etxea zegoen. 1506an berreraikia izan zen eta 1560.ean suak suntsitu zuen. 1616an beste sute bat izan zen eta orubea Udalak erosi zuen. Kalegoengo plaza zeharkatzen zuen Antzarsoroeta erreka estali egin zuten eta gaur egun ezaguna dugun plaza barrokoa eraikitze baldintzak zehaztu ziren.
- XVII. mendearen erdi aldera hasi zen eraikitzen parrokia. XVIII. mendean Udaletxea (1726), frontoia eta etxeak (1760) eraiki ziren. Ordenazio plangintza Francisco Ibero azpeitiarrak eta Jose Zuaznabar ermuarrak burutu zuten, plano oraindik ere kontserbatzen delarik.
- Foruen Enparantza Elgoibarko gune neuralgiko eta publikoa izan da azken bi mende t'erdian, funtzio asko bete izan dituelarik.

PELLO ARRIETA



## Alejandro Gomez Velasco (1934-1990)



- Eibarren jaioa, 1934ko abenduaren 8an.
- Gerrak bultzatuta, Durangon bizi izan zen 22 urtera arte, hortik "Durango" gaitzizena.
- Lantegi ezberdinetan aritu ondoren Danobat-en lan egin zuen hil arte.
- Futbolzalea zen, entrenatzaile modura ibilitakoa. Sasoi batean Benito Díaz deitzen zioten, entrenatzaile ezagunaren oroimenez.
- Birritan izan zen C.D. Elgoibar elkarteko zuzendaritzako kide. Zuzendaritzan zegoela hirugarren mailara igo zen ekipoa eta Valentziak Sol fitxatu zuenean ere, zuzendaritzako partaide zen.
- Athletic-zale amorratua izan zen, Durangoko bere koadrilakoa baitzen Eneko Arrieta Athletic-eko aurrelaria.
- M. Concepción Barrutiarekin ezkondua, bi seme izan zituen, Victor eta Jon.
- 1990. urtean hil zen, abuztuaren 19an.

# TXURI BELTZ

Taberna

San Franzisko 38



**CRISTALERIA  
ELGOIBARRESA C. B.**

*Bidriera artistikoak  
Obra komertzialak*

Urasandi 12 beheak  
Tel-Fax: 74 04 89

## MOTZAK

### Yosemitetik itzuli da Pablo Barrenetxea

Joan den abuztuaren 15ean abiatu ziren hiru elgoibartar, Pablo Barrenetxea, Aitor Esnaola eta Rosa Alamino Kalifornia aldera, Yosemite mendi mitikoa eskalatzea. Mila metroko "El Capitán" izeneko horma igo ondoren, Pablo Barrenetxea Elgoibarrera itzuli da lanak behartuta. Beste bi elgoibartarrak, Esnaola eta Alamino, Yosemite geratu dira eskalatzeko jarraitzeko asmoz. Han eman duten aldian, besteak beste "El Capitán"eko horma luzeak igo dituztela adierazi digu Barrenetxek, "zailtasunari dagokionean A3+ izan da egin dugun gradorik gogorre-na". Gainontzeko bi elgoibartarrek beste hilabete bat Yosemite igarotzeko asmoa dutela esan digu Pablo Barrenetxeak.

### Pilota partiduak Ikastolako frontoian

Lagunak Pilota Eskolako Garate eta Karmel bikoteak Beasaingo Burumendikoen aurka jokatuko dute bihar, hilak 30, Ikastolako frontoian. Kadete mailako partidu hau Herrien arteko Txapelketari dagokio eta eguerdiko 12etan hasiko da.

### Xake txapelketa

Datorren astelehenean, urriak 2, Errosario kaleko jaien barruan, Xake Txapelketa erdi-azkarra jokatuko da Zubi-Ondo elkarteak antolatuta. Hirugarren edizio honetan bi kategoria egongo dira, jubenilak eta infantilak. Izena emateko Tomas Conderekin (74 34 29) harremanetan jarri.

## Aitor Garitagoitia:

### "Oilagorra gitxio etortzen da oin"

■ **Asko ehizatzeke, zortea, punteria...** - Suertia piskat, txakur ona euki eta norberak ere punterixa ona. Txakurra ondo ibili bihar da bestela... Eta txakurrak bilatzen dabanari ondo bota.

■ **Txapelketetan sarri ibiltzen zara?** - Bai, zalia naiz. Oin bi urte zonakuan irabazle geratu nitzan eta Gipuzkoan hemezortzigarren. Iaz ez nitzan klasifikau eta aurten herriko lehena atera dot.

■ **Txakurrik gabe zer ehizatzen da?** - Faisaian beti txakurrakin eta uso pasia txakurrik gabe.

■ **Zein duzu gogokoena?** - Txakurrakin nahixo dot baina uso pasia ere gustatzen jata. Txakurrakin oilagorretan, eperretan, galeperretan, faisanetan... Gehixen oilagorrek ehizatzea gustatzen jata, baina egualdi aldaketiagatik edo, lehen baino gitxio etortzen da oin. Oilagorrek hotza bihar dau.

■ **Zenbat txakur dauzkazu?** - Lau, bi gaztiak eta beste bixak zahartxuauak.

■ **Ehiza mota bakoitzean txakurrrak funtzio bat dauka?** - Bai, basurdetan ein bihar dabana da atzetik segitxu eta parian tokatzen bada jendia bueltan jartzen da. Oilagorretan, adibidez, txakurra gelditxu ein bihar da... funtzio desberdinak dazka.

■ **Nor da ehiztari**



**hobea, zeu ala txakurrak?** - Ez dao jakiterik, txakurrak ondo ibiltzen dia, baina ordu asko pasau bihar dia. Berezkoa ere euki bihar dabe piskat bestela... Afizua eukitxa, gero hartzen dabe esperientzia.

■ **Zer motako ehiza dago hemen inguruan?** - Oilagorra urritik urtarilerera, kanpotik etortzen dan hegatzia da. Azerixa asko dao, ez mendixan bakarrik beheratxuo ere bai. Basurdia ere azaltzen da lantzian behin. Neguan batez be eoten da kazia eta gero kanpora ere juten naiz, Logroñoko koto batera.

■ **Bada eskopetero deitzen dizuenik.** - Ehiztarixak ez dio edozeri tiratzen. Ezagutzen dogu ehizia eta bedak edo protejidutako espezieak errespetau eitzen diaz.

■ **Ekologistatzat al duzu zeure burua?** - Gu ez gera naturaren kontra aritzen, ez dot uste depredatoria naizenik. Kanpotik ez da txoririk sartzen, horregatik dao kaza gitxio. Bedak ere errespetatzen dia, ze, multak ez dia txantxetakuak eta eskopetia kentzia azkena da.

- Adina: 21
- Eskopeta marka: Benelli super ligera
- Faisaia nola? Saltsan onena
- Asteko egun bat: larunbata

San Francisco 12-14, Tel. 74 05 49

San Bartolome 18  
☎ 74 08 49

**EGONDO, s.a.l.**  
METALEZKO ERAIKUNTZAK  
KALDERERIA LANAK OROKORREAN

Olasope kalea 3. blokea ☎ 74 34 08-04 FAX 74 34 08

# Aitor Garitagoitia gazteak irabazi zuen San Migelen

Gazteak nagusitu ziren pasaden larunbat goizean San Migeleko Mendibeltzun burutu zen faisaien ehiza txapelketan. Lehen hiru postuetan ehiztari gazteak sailkatu ziren, Garitagoitia eta Arriolak bost faisai harrapatu zituzten bakoitzak eta hirugarren geratu zen Dani Arenasek 4 pieza. La Unión elkarteak arduradunek azaldukoaren arabera, euriak ez zuen faisaiak ehizatzen lagundu goizaren lehen partean, egerdi aldera zertxobait hobetu

arren. Guztira 60 hegazti askatu zituzten, hauetatik 42 ehizatu eta 18 geratu ziren aske, lehiaketa ostean ehizatzen direnak. Partehartzaile kopurua 20 ehiztarikoa izan zen eta lehen hiru sailkatuak hauexek izan ziren:

IZENA	Hegazti kopurua	Sarrera Ordua
Aitor Garitagoitia	5 pieza	11:32
Patxi Arriola	5 pieza	12:52
Daniel Arenas	4 pieza	11:25



■ ■ Erdian irabazlea, ezkerrean bigarrena eta eskuman hirugarrena.

## MOTZAK

### Herri Kirolak Errosario kaleko jaietan

Herri kirolek Errosario kaleko jaietan izango dute tartetxo bat. Ostegunean, urriak 5, Elgoibarko Egi, Iriarte eta Mintxeta gaztetxoak herri kirolen erakustaldia burutuko dute arratsaldeko 6etatik aurrera. Esku pilota partidurik ere egongo da. Urriaren 7an, Errosarioko amabirjinaren egunean hiru pilota partidu jokatuko dira Plaza Handiko frontoian goizeko 11,30etan hasita. Lehen partidua Lagunak Pilota Eskolako infantilena izango da. Ondoren Tapia elgoibartarra eta Oteiza azkoitiar profesional izandakoak osatutako bikotea Sallobenteko Agirrebeña eta Txurrukaren aurka arituko dira norgehiagokan. Azkenik, Beraza eta Odria elgoibartarrek Iparraldeko Arantburu eta Zugastiren aurka jokatuko dute.

### Argazki Lehiaketa Morkaikoren eskutik

Mendiko Argazki Lehiaketa antolatatu du Morkaiko elkarteak, mendizaletasuna bultzatzeko asmoz. Elgoibartarre ezetik, Morkaikoko bazkide direnek ere parte hartu ahal izango dute. Zuri-beltzean zein koloretan, bakoitzak nahi duen neurriko argazkiak ateratzeko aukera dauka. Lanak aurkezteko azken eguna abenduaren 1a izango da. Lehiaketan parte hartzen duten argazki guztiekin erakusteko egiteko asmoa du mendizale elkarteak eta irabazleen izenak abenduaren 26an izango den ekitaldi berezi batean ezagutaraziko dira.

### Revuelta Bergarako krosetan irabazle

Alberto Revuelta elgoibartarrak Bergarako San Martin kros herrikoia irabazi zuen joan den larunbatean. Bederatzi km.ko ibilbidea 27 minutu eta 22 segundutan burutu zuen, bigarren izan zen Manuel Hidalgo azpeitiarrari bi segunduko errenta atera ziolarik.

## EMAITZAK

### Areto Futbola

(1. maila) Bar Egoki 8 - Elgoibar F.S. 1  
(2. maila) Elgoibar F.S. 3 - Gubi Zarautz 3

### Eskubaloia

Elgoibar Hiria Saria  
(Kadete mutilak)  
Elgoibar 13 - Arrate 7  
Bergara 16 - Arrate 11  
Senior mutilak  
Elgoibar 20 - Akondia 8

### Futbola

Haundi 1 - Lagun Onak 0  
Lesaka 5 - Elgoibar 1 (1. errejionala)  
Idiazabal 4 - Elgoibar 0 (Jubenilak)  
Sporting Herrera 8 - Elgoibar 1 (Kadeteak)

## AGENDA

### Pilota

Larunbata, 30, Ikastolako frontoian  
(Herrien arteko Txapelketa)  
Burumendi (Beasain) - Karmel eta Garate  
(Lagunak)

### Futbola

Larunbata, 30, Mintxetan  
10,00 Urki - Gazteak (2. errejionala)  
12,00 Elgoibar - Urretxu (Neskak)  
16,00 Elgoibar - Zumaia (1. errej.)  
17,45 Elgoibar - Hamaikak Bat (Jubenilak)

### Igandea, 1

10,00 Elgoibar - S.D. Eibar (Infantilak)  
12,00 Elgoibar - Antiguoko (Kadeteak)  
15,00 Eibartarrak - Ilintxa (Jubenilak)  
16,45 Beti Sutan - Soraluze (2. errej.)

## Elgoibartarren esku egongo da Gipuzkoako Banden Federazioa datozen bi urteotan

**D**atozen bi urteotan elgoibartarren esku egongo da **GIBANTZAR**, Gipuzkoako Banden Federazioaren zuzendaritza, eta egoitza ere Elgoibarren izango du. Orain dela hamabost egun egin zuten Deban zuzendaritza aldaketa. Irundarren eskutik erreleboa jaso zuten elgoibartarrek, Felix Lodoso Eibarko Bandaren zuzendaria Federazioaren lehendakari izango delarik, Jose Antonio Osoro Udal Bandaren zuzendaria lehendakari-orde, Jose Mari Kortaberria bokala eta Txo-

min Mujika diruzaina. Zuzendaritza berriaren lehen ekitaldi ofiziala pasaden igandean izan zen Azkoitan, Cándido Beristain musikariaren omenaldian. Bailarako antolatzen da bi urtetik behin berritzen den erakunde honen gorengo organoa eta oraingoan Deba bailararen txanda da.

Zuzendaritzaren gaintzeko karguak Deba, Bergara eta inguruko herrietako ordezkari osatuko dira. **GIBANTZAR** eskuartean duen proiektu edo egitasmoen artean Euskadiko Banden



■ ■ **F. Lodoso lehendakaria eta J.A. Osoro lehendakariordea.**

Federazioa sortzea dago. Hortaz, datozen bi urteotan proiektu hori gauzatu zuten saiatuko direla azaldu digute zuzendaritza berriko kideek.

# CAMBRIDGE

Examinations, Certificates & Diplomak

## ENGLISH AS A FOREIGN

---

### UNIVERSITY OF CAMBRIDGE

### LOCAL EXAMINATIONS SYNDICATE

Informazioa eta matrikulak

ELGOIBAR: Kensington School of English .....	74 02 36
Key Academia de Ingles .....	74 30 44
DURANGO: Compubit English Institute .....	94-620 20 20
ARRASATE: Parlance .....	77 06 83
Cim-Ahizke .....	79 01 32
BERGARA: Espolon School of English .....	76 03 53
EIBAR: Anglo-American .....	10 64 57
Interidiomas .....	12 10 03
Ukitze .....	70 25 59
Link Idiomas .....	10 39 59
ONATE: A & M School of English .....	71 61 37
Cim-Ahizke .....	71 60 00
ONDARROA: Howdy Academy .....	94-613 43 26

Matrikulak:  
Irailaren 25etik  
urriaren 5era

Azterketak eta datak

F.C.E. (First Certificate English) .....	Abenduak 12
C.A.E. (Cambridge Advanced English) .....	Abenduak 14
C.P.E. (Cambridge Proficiency English) .....	Abenduak 13

TOKIA: ARMERIA ESKOLA (EIBAR)

# Mertxe Sueskun

## “Artelana artistaren izaeraren islada da”

Mertxe Sueskun eskultore elgoibartarra Poloniatik etorri berri da. Varsoviatik 200 km.ra dagoen Lodz herriko Oihalarren VIII. Trienalean “Alkartasuna” izeneko obra izan du erakusgai. Tarrasako museo textileko zuzendariaren bidez Lodz-en erakusteko gonbidapena jaso

zuen. Han bizi den Gemma Aizpitarte elgoibartarraren “laguntza estimagarriari esker” Polonian hamar eguneko egonaldia egin du, “nire lana hangoen aldean zeharo ezberdina den arren, haiek bezain balekoa” dela ikusteko balio izan diolarik.



- **Polonian erakusteta. Nolatan?** - Sevillako Ruesga eskultoreak nire lana ezagutzen zuen. Honek Tarrasako museo textileko zuzendariari nire lanaz hitz egin zion eta Lodz-eko museoko zuzendaritzako kide ere badenez, joateko gonbidapena luzatu zidan. Aldundian diru laguntza eskuratu nuen eta Polonian lagun bat nuenez, Gemma Aizpitarte elgoibartarra, animatu egin nintzen.

- **Lan bakarra aurkeztu duzu.** - Bai, Alkartasuna izena dauka. HIE-

HIESa duten gaixoekin elkartasuna adierazi nahi nuen.

- **Nolakoa izan da erakusketa?** - Lan handiak zeuden batez ere, haien alboan nirea txiki xamarra zen. Tapiz asko zegoen, eta eskulturen antzeko lan ugari. Gauza bat bestea bezain balekoa dela ikusi dut eta ez zaiola ezerrri beldurrik izan behar.

- **Oihala lantzen duzu.** - Bai oihala, bai eta beste material asko ere bai. Alabastroa hasieran landu nuen eta azken aldian “Todo a 100”

ta jakin daiteke hori. Nire ustez pertsona baten lana haren izaeraren islada da. Erakusketa bat egiten duzunean besteen aurrean biluztu egiten zarela esaten dut sarritan. Obra batek argi eta garbi zerbait denuntzia dezake, eta beste batek denuntzia bera egin dezake baina modu sotilagoan.

- **Eskultore baten estiloa imitatzekotan, norena kopiatuko zenuke?** - Ez dut gogoko kopiatzea baina ukazina da komunikabideen eraginagatik, batez ere, bi pertsonen lanean, ideia berdi-aurki daitezkeela.

- **Zer diferentzia da gogo eskultura on eta gogoko baten artean?** - Adi-

tuen arabera, funtzionatzean ala ez funtzionatzean dago gakoa. Baina eskultura abstraktu batean oso zaila da esatea. Modak, marketing-ak, salmentak... zeresan handia dute. Ona ala txarra den nork esaten duen ere badu garrantzia.



### • Nortasun agiria • • • • •

49 urte bete zituen igandean Mertxe Sueskunek. Iruñean jaiotako emakume hau 1972an etorri zen Elgoibarrera, “elgoibartar batekin ezkontzera”. Delineazioa ikasi zuen Mekanikan eta Armerian ibili zen beranduago. Emakume aktiboa, “ezin dut ezer egin gabe egon” aitortu digu, “agobiatu egiten naiz”, diseinu ikastaroa egiten ari da orain INEMen. Debako Arte Eskolan izan zuen artearekin lehen kontaktua, zeramikarekin. Egur-en aritu zen ondoren, Fernando Beorlegirekin eta gaur egun, “fase eklektiko batean” dagoela azaldu digu. Eskultura serio-ki lantzen du, “ezinezkoa zait bertatik bizitzea baina profesional batek bezala planteiatzen dut eskultura”.



## Lehiaketak

**JOSE MARIA ARIZMENDIA-RRIETA X. LEHIAKETA** antolatatu du Gizabide fundazioak. Euskal Herrian irakas-kuntza Ertainetan ari den edonork har dezake parte. Oinarriak nork bere ikastetxean eskatu. Epea: azaroak 7. Larrin Plaza, Aretxabaleta.

Iñaki Begiristain idazleari buruzko **GAZTETXOEN LEHIAKETA** antolatatu du Azpeitiko Udalak, Euskadiko XIII. Euskal Antzerki Topaketan barruan. OHOk 7. mailatik BBBko 2. mailara edo Erreforma-ko 2. mailara bitarteko ikasleek har dezakete parte. Epea: urriak 11.

**FELIPE ARRESE BEITIA OLERKI SARIA** antolatatu dute Euskaltzaindiak eta Bilbo Bizkaia Kutzak. Euskaraz idatzitako edozein olerki aurkez daiteke. Epea: urriak 16. Bilbo Bizkaia Kutzaren kultura aretoan, Elkano 20, Bilbo.

## ZATOK GUREKIN JOLASTERA

Gazteen Gurutze Gorriak 9 eta 13 urte bitarteko haurrentzat ikastaro batzuk antolatu berri ditu "Zatok gurekin jolastera" lemapean. Lau arlo ezberdin landuko dituzte: ingurugiroa, osasuna, solidaritatea eta berdintasuna.

**A**smoa adin horretako neska-mutilak gai horretan hezitzea da, heziketa beti ere era ludiko eta dibertigarri baten bidez, jolasen, praktikaren bidez. Beraien hitzetan helburuak hiru dira, "ondo pasatzea, hezitzea eta Gurutze Gorriako kantera sortzea".

12 pertsonaz osaturiko taldea da Gazte Gurutze Gorria. 16 eta 18 urte bitarteko neska-mutilak dira, musu truke beraien denbora librean. Mikel Lizarralde da zuzendaria eta aitortu digunez, bataz beste, 10 ordu ematen ditu egunero Gurutze Gorrian. Berez, Gurutze Gorriak hiru lantalde ditu: osasuna,

ekintza bereziak eta aipatu berri dugun Gazteen Gurutze Gorria. Azken talde honek batez ere haur eta gazteekin egin nahi du lan, Gurutze Gorriaren oinarri ideologikoa jarraituz, neska-mutilak hezituz, ikastaroak eginez, jolasak antolatuz eta abar. Lau urte inguru daramate lanean eta



gurekin jolastera du gazte Gurutze Gorria. 16 eta 18 urte bitarteko neska-mutilak dira, musu truke beraien denbora librean. Mikel Lizarralde da zuzendaria eta aitortu digunez, bataz beste, 10 ordu ematen ditu egunero Gurutze Gorrian. Berez, Gurutze Gorriak hiru lantalde ditu: osasuna, ekintza bereziak eta aipatu berri dugun Gazteen Gurutze Gorria. Azken talde honek batez ere haur eta gazteekin egin nahi du lan, Gurutze Gorriaren oinarri ideologikoa jarraituz, neska-mutilak hezituz, ikastaroak eginez, jolasak antolatuz eta abar. Lau urte inguru daramate lanean eta



## BERTSO ESKOLA 95/96

*noentzat?*  
OHOk haurrentzat

*noiz?*  
Urriari hasi eta ekainean amaitzeko. Asteaz ordubete.

*Animatu!*  
AURKEZPENA ETA TALDEEN ANTOLAKETA  
Urriaren 7an, larunbata  
Elgoibarko Izarra K.E. an (Ubitarte 4)  
Goizeko 11,00etan

ANTOLATZAILEA: Elgoibarko Izarra K.E. LAGUNTZAILEAK: Elgoibarko Udala / Gipuzkoako Foru Aldundia.

## Salerosketak

BI AKUMULADORE eta HIRU BEROGAILU salgai. Erabili gabe, egoera oso onean.

☎ 74 09 23

ARMAIRU BAT saldu nahi dut: biltzen den ohea, 6 kajoi, bi sekreter eta abar... Prezio onean.

☎ 74 15 75

KANPING BAT SALTZEN DUT. 3 plaza. 5.000 pta. Berria.

☎ 74 37 34 Nuria

BI EDREDOI 90cm.koak SALGAI. Estrenatu gabe. Merke.

☎ 74 33 24 Maite

PASIAKAKO BIZIKLETA BAT saltzen dut. Egoera onean eta saskiduna.

☎ 74 04 86

HAUR KOTXE INGLES BAT saltzen da 23.000 pta.tan. (Kuna, kotxe estalkia eta bainera oparitzen dira)

☎ 75 61 71

## Garajeak

GARAJE BAT ALOKATZEKO daukat San Roken.

☎ 74 17 95

## Etxebizitzak

Donostian logela bat konpartitzeko neska bat behar da. Gros auzoan.

☎ 74 42 07 Aitor

ETXE BAT daukat alokatzeko, amueblatua eta igogailuarekin.

☎ 74 09 44

ETXEBIZITZA BAT SALTZEN DUT EULOGIO ESTARTAN. Egoera oso onean dago.

☎ 74 10 46 Maite  
(Gauz 10etatik 11etara)

Ingelesko irakasle bat naiz eta alokairuan dudan ETXEA KONPARTITUKO NUKE

☎ 74 24 99 Antonia

Ingelesko irakasle batek LOGELA BAT eta pentzio osoa edo sukaldean ibiltzeko aukera nahi ditu. (9 hilabetez)

☎ 42 84 06 / 74 02 36  
Richard

## Lana

Neska bat ETXEKO EDOZEIN LAN EGITEKO PREST dago.

☎ 74 33 24 Maite

Eibarren kontsultarako prestatua dagoen LOKAL BAT alokatzen da.

☎ 79 85 24 Isabel

Ezin dugulako atentitu, LOGOPEDIA ZENTROA alokatzen da Eibarren.

☎ 79 85 24 Isabel

ANDRE BAT behar da bi pertsona nagusi zaintzeko. Goizeko 9etatik gaueko 9ak arte.

☎ 74 29 30

Emakume bat ETXEKO LANAK EGIN, NAGUSIAK ZAINDU ETA ABAR... egiteko prest dago

☎ 75 62 57 Mari Karmen

## Partikularrak

OHoko KLASE PARTIKULARRAK ematen ditugu Elgoibarren.

☎ 68 20 42 Maider

Hezkuntza Zientzietan lizentziatuak (pedagogia) eta 7 urtetako esperientziarekin OHO, IEE eta HSAOLEko klase partikularrak emango ditu euskaraz eta gaztelera.

☎ 74 39 24 Maite

MARRAZKI TEKNIKO ETA DIEDRIKO KLASEAK ematen ditut.

☎ 74 43 98 / 74 34 01 Iñaki

MATEMATIKA, FISIKA ETA KIMIKA klaseak maila guztietan ematen ditut.

☎ 74 43 98 / 10 27 82  
Marian, gaueko 9,30etatik aurrera

MAILA GUZTIETAKO FRANTSESEKO KLASEAK ematen ditut. Enpresetarako itzulpenak eta interpretazioak ere bai.

☎ 74 04 59 Jacqueline  
(13,00-14,30 eta gauz 20,00etatik aurrera)

## Agurrak

Igandean 10 urte bete zituen Maialen Astigarragari Zorionak 5. mailako neska-mutilen partez.

Zorionak Elur Arrieta Aizpuruari, irailaren 19an bere urtebetetze eguna izan baitzen.

## Bestelakoak

Ikastolako hirugarren mailako haurrek 6 ENTRENATZAILE behar ditugu lehenbailehen. Bi saskibaloirako, bi eskubaloirako eta beste bi futbolerako.

☎ 74 31 81 / 74 12 31

Karitasek FRIGORIFIKO BAT eta BI OHE TXIKI (80 cm eta 90 cm.) koltxoekin behar ditu.

☎ 74 15 09 - 74 12 57

## PREMIAZKO TELEFONOAK



### OSASUNA

Anbulategia:

Larrialdiak.....461111  
Txanda hartzeko.....743354  
Planning-a .....742950  
Alkoholiko Anonimoak..740385  
D.Y.A (anbulantzia) ..464622  
Gurutze Gorria.....743864  
Mendaroko Ospitalea756264  
Drogomenpekotasun Z.741008  
Odol Emaileak .....743936

### GARRAIOAK

Eusko Trenbideak.....740442  
PESA (Eibar).....102131  
Taxi geltokia.....740898

### UDALA

Euskara Zerbitzua.....744366  
Kirol Zerbitzua .....744415  
Kultura Zerbitzua .....742158  
Mendaroko Udala ....756100  
Ongizate zerbitzua...743736  
Udaletxea .....741050  
Udaltzaingoa .....741394

### BESTELAKOAK

Caritas .....740142  
Elgoibarko Izarra.....741626  
IMI.....741196  
Kontsumo Bulegoa ...743088  
Liburutegia .....743525  
Musika Eskola .....742145  
Mintxeta .....744315  
Parrokia.....740842  
Polikirolegia .....741361  
Postetxea.....741547

### HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza...740296  
Zaharren Biltokia.....740526

### IKASTETXEAK

Herri Eskola .....74 08 79  
I.M.H. ....74 41 32  
Instituta .....74 02 67  
Ikastola .....74 44 41  
L.H.I.....74 44 80  
Pilar Ikastetxea .....74 13 31

### KOMUNIKABIDEAK

BARREN.....74 41 12  
El Diario Vasco .....74 40 73  
El Mundo .....74 27 59  
El Correo Español...74 10 82  
Egin.....10 84 21  
Deia .....74 11 57  
Zazpiki .....74 34 74

## 29 OSTIRALA

22,15 ZINEA

"Dos policías rebeldes"

## 30 LARUNBATA

19,30-22,15 ZINEA

"Dos policías rebeldes"

## 1 IGANDEA

16,30 ZINEA

"Un indio en Paris"

19,30-22,15 ZINEA

"Dos policías rebeldes"

## 2 ASTELEHENA

22,15 ZINEA

"Dos policías rebeldes"

## 3 ASTEARTEA

22,00 ZINEA

"Un indio en Paris"

## 6 OSTIRALA

19,00 URTXINTXA TALDEAREN  
ERAKUSKETA

Gaia: "Gorbeia ingurune ekologikoa"

Kultur Etxean

Hilaren 22ra arte

22,15 ANTZERKIA

Izenburua: "Il ladronne"  
Antzezleak: Gaztelubide  
elkartekoak

Herriko Antzokian  
Sarrera: 400 pta.

## ERROSARIO KALEKO JAIK

### 1, igandea

17,30: Jaien hasiera

18,00: Parroki abesbatzarekin errosarioa eta Gure Jaunaren erakusaldia parrokian.

### 2, astelehena

17,30: Txafliu jaurtiketa.

Segidan: Xake partidu erdi-azkarrak.

### 3, asteartea

17,30: Txafliu jaurtiketa

17,45: Erraldoi eta buruhandiak.

Segidan: Haurrentzako zaku lasterketak.

### 4, asteazkena

17,30: Txafliu jaurtiketa.

17,45: Erraldoi eta buruhandiak.

Segidan: Itsulapiko apurketa.

### 5, osteguna

17,30: Txafliu jaurtiketa.

18,00: Herri Kirolak Egi, Iriarte eta Mintxetako Arkaitz Egañarekin.

Jarraian: Trikitilari Eskolako kalejira.

20,30: Trikitilariekin kalejira.

### 6, ostirala

17,30: Txafliu jaurtiketa.

17,45: Buruhandi eta erraldoiak.

19,30: Tritikilarien kalejira.

20,30: Errosariooko amabirjinari otoitza eta Salbea.

Jarraian: Itxaropena abesbatzarekin kontzertua leku berean.

21,15: Afari herrikoia Gure-Biden Dakintak eta Duo Plaentxik alaituta.

## SAN MIGEL AUZOKO JAIK

29, ostirala San Migel eguna

22,30: HARITZ dantzari taldea

Segidan EGAN taldea.

30, larunbata

22,00: Idi demak. Bikoteak: Belarreta, Iketza eta Artadialde.

Ondoren, gaupasa LUHARTZ taldearekin.

01,00: Bolo txapelketa.

1, igandea

11,30: Meza Nagusia.

Ondoren, XII. Pilota Txapelketaren azken patidua.

17,00: Bertso jaialdia Lizaso, Egaña, Peñagarikano, Sarasua, Iturriaga eta Iratxe Ibarrekin.

Egun guztian IPARRAGIRRE trikitilariak.

## txandak

### FARMAZIAK:

DATA	EGUNEZ	GAUEZ
30, larunbata:	Ormazabal	Ormazabal
1, igandea:	Ormazabal	Ormazabal
2, astelehena:	Ormazabal	Zabaleta
3, asteartea:	Ormazabal	Zabaleta
4, asteazkena:	Ormazabal	Zabaleta
5, osteguna:	Ormazabal	Zabaleta
6, ostirala:	Yudego	Zabaleta

### OKINDEGIA:

12, igandea: IDARRAGA



### Dos policías rebeldes (Bad boys)

Zuzendaria: Michael Bay

Antzezleak: Martin Lawrence,  
Will Smith, Tea Leoni.

Miamiko polizia 100 milioi dolarreko balioa duen heroína lapurtzen diote. Burnet eta Lowrey poliziak ikerketaren arduradun izendatuko dituzte. Heroína topatzen ez badute, komisaldegia itxi egingo da. Denboraren aurka, Miamiko lapur handi bat atzeman nahian ibiliko dira, bala, bonba eta era guztietako arriskuen artean. Emakume eder bat, lapurra identifikatzeko prest dago.

### Un indio en Paris

Zuzendaria: Hervé Palud.

Antzezleak: Thierry Lhermitte,  
Patrick Timsit, Ludwig Briand.

Dibortziatu nahi duen Steph negozio gizona, Amazonas aldera abiatzen da bere emazteak dibortzio-paperak sina ditzan. Egun batean Venezuelako herrixka isolatu batean bizi den hamahiru urteko semea duela jakingo du, emaztea egia izkutatzen ahalegintzen den arren. Semeak Eiffel dorrea ikusteko kapritxoa duela eta, Parisera eraman dezan komentitzen du aita.

# OLAIZAGA

## KIROLDEGIA



*Zatoz eta zeuk ikusi!*

**95-96 MATRIKULA ZABALIK**


San Roke, 1 ■ ELGOIBAR ■ Tel. (943) 74 13 61

*Giro profesionala kirolzaleen zerbitzura*

### INSTALAZIOAK



FRONTOIA-KANTXA  
SQUASH-A  
FRONTOI TXIKIA  
IGERILEKUA  
GIMNASIOA  
MUSKULAZIO GELA  
TABERNA-JATETXEA  
ROKODROMOA  
SOLARIUM-TERRAZA



### IKASTAROAK

IGERIKETA  
IGERIKETA ESKOLA  
KARATE (helduak)  
AEROBIC-a  
MANTENU GIMNASIA  
SHEE-IVE Ferako prestakuntza  
MUSKULAZIOA  
AQUAEROBIC-a  
MASAIA  
DEFENTSA PERTSONALA



*Ikastaro berriak*

IGERIKETA ESKOLA  
KARATEA (7 urtetik beherakoentzat)  
GIMNASIA EGOKITUA

### SAUNA ETA MASAIA


SAUNA  
MASAIA OROKORRA  
MASAIA LOKALIZATUA  
MASAIA DEPORTIBOA  
MASAIA TERAPEUTIKOA



UVA IZPIAK  
HIDROMASAIA  
AURPEGI MASAIA  
AURPEGI GARBIKETA







# DENA GARBIA

## ESKAINTZA BEREZIAK



### **Artegi tarjetak erraztasunak ematen dizkizu:**

**DOHAINEKOA ETA TRAMITERIK GABEKOA**

Abalik gabe eta zeharo dohainik.

**BEREHALAKO KREDITUA**

Kreditua eskatuz gero, momentuan bertan izango duzu azken nomina eta NANA erakutsita.

**ORDAINTZEKO MODUA AUKERAN**

Hiru hilabeteko epea interesik gabe.

**GARBIGAILU, LEHORGAILU ETA PLATER GARBIGAILU AUKERA HANDIENA**



# MILAR ARTEGI

San Frantzisko, 40 • ELGOIBAR • Tel. 74 06 87